



BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezero berriak lortzeko hainbat ekintza eraman behar ditugu aurrera, hala nola, gure bezeroak adineko jendea direnez eta sare sozialak kontrolatzen ez dituztenez, **kartel tentagarriak** ipiniko ditugu leku desberdinetatik eta postontzietatik era sartuko ditugu beraiek ikusteko eta erakartzeko.

Honetaz aparte, gazteak erakartzeko, **sare sozialak** gazteen artean modan dagoenez eta internetetik ibiltzeko ohitura dutenez, Instagram edo Facebook kontua eta weborri bat sortu ahal ditzakegu beraiek ere gure ile apaindegira etortzeko.

Amaitzeko, **spotify** aplikazioa hain famatua egin denez, pentsatu dugu iragarki bat ipintzea gure enpresa sustatzeko. Eta adineko jendearentzat, spotify erabiltzen ez dutenez, iragarkia irratian ipintzea pentsatu dugu. Horrela gure iragarkia entzungo dute spotify erabiltzen hari direnean edo irratia entzutean.



Bezeroak lortu ondoren eta lehenengoz gure zerbitzuak kontsumitzera animatu direnean, bezero hauen fidelizazioa bilatzea izango da gure helburua. Hori lortzeko, kupoiak, opari-txartela eta prezio bereziak eskainiko diegu. Are gehiago, egun berezietak, besteak beste haien urtebetetzean, gure ileapaindegian erabiltzen dugun produktu bat opariko digue (35 eurotan baluratua), zehazki haiek nahi dutena. Adibidez: makilajea, xampua.

